



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO URRIAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Urriaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Alaia Etayo, Iker Isiegas, M^a Mar Ansorena eta Micaela Elizalde.

EZ BERTARATUAK: Javier Auza.

Bertaratu da baita ere Goretti Beunza, Ihabengo kontzejuko alkatea.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Irailaren 27ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak

- 2023/106 alkate ebazpena: Baimena ematea Arrako Iribarren Irigoyenek egindako eskaera, Aizarozko areto nagusia erabiltzeko irailaren 28an Dantza saio bat egiteko arratsaldeko 17:15etatik 20:15etara
- 2023/107 alkate ebazpena: Onartzea Jose Navarriori sabaia isolatzeko obraren inguruko zaharberritzeko dirulaguntza, 424.94 euro.
- 2023/108 alkate ebazpena: Onartzea Orokieta Erbitiko kontzejua aurkeztuako aitortpen arduratsua eta aurrekontua, Erbitin pareta batzuk egokitzeko 12.016,10 euroko aurrekontuarekin-

- **2023/109 alkate ebazpena:** .- Baimena ematea Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateari , Aizarozko areto nagusia erabiltzeko gizonekin tailer bat burutzeko 16etatik 18:30etara urriaren 25ean, azaroaren 8 eta 22an, abenduaren 13an eta urtarrilaren 17 eta 31ean
- 2023/110 ebazpena: Onartzea Yesa Ana Bearziri Apeztegi berriko eraikinaren erabilera anitzetako bigarren pisuko gela erabiltzea, urritik maiatzera pilates klaseak emateko, aste lehen eta asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara.
- 2023/111 alkate ebazpena: Onartzea, Rufina Barrenechea Latasari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.
- 2023/112 alkate ebazpena Ez onartzea M^a Jesus Gartziandia Otsorok egindako eskaera, 6683 GMT autoari behin betiko baja emateagatik, 2023ko zirkulazio zerga bueltatzeko, aipatutako autoaren behin betiko baja 2023ko urriaren 3koa izanik ez dagokiolako 2023ko azken hiruhilabeteko zergaren itzulketa.
- 2023/113 alkate ebazpena: Baimena ematea Argimalutak empresari Aizarotzko Kultur etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko urriaren hasieratik maiatzaren bukaerara ostegunetan arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara yoga ikastaroa emateko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.-Basaburuko pasarelen erabilera arautzeko ordenantza. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du prestatu zela gunen erabilera arautzen zuen ordenantza bat non soinua, sua, ordutegiak eta beste arautuak gelditzen ziren. Ordenantza izanik, erabilera arauak ez badira betetzen Foruzaingoa deitu ahal da dagokion prozedurari hasiera emateko. Ordutegia aldetik adibidez, goizeko 9etatik 21etara finkatu da, ezin da surik egin, ez gaua pasatu, ezin da aparkatu finkatutako eremutik kanpo eta beste arau daude sartuak aipatutako testuan. Arau hau biltzen dituen kartela jarriko da pasarelen gunean eta markatuko da bertan ere zein den aparkatzeko gunea.

Ordenantzaren hasierako onespena abuztuaren 31eko batzarrak eman zitzaion, irailaren 11eako NAON argitaratu zen eta urriaren 24a arte egonda jende aurrean 1990/6 Toki Administrazioako Foru Legearen 325. Artikuluaren arabera hilabeteko epean. Alegazioak aurkeztu ez direnez egin, behin betiko onespena ematea dagokio ordenantzari.

Bildutakoek hortaz aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Behin betiko onespena ematea Ihabengo Basaburuko pasarelak aisia eremuaren erabilera arautzen duen ordenantzari eta ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

4.- Behin betiko onespena udal araudi orokorraren 26. Artikuluaren aldaketari. Aterpeen eraikigarritasuna.

Alkateak azaltzen du espediente honi hasierako onspena eman zitzaiola uztailaren 28ko batzarrak. Udal aldaketa honen bitartez aterpeen eraikigarritasuna kentzen da, beti ere irekiak gelditzen badira .Aldaketa hau sortu zen Aizarozko etxeek eraikigarritasuna agortua dutelako eta beheko solairua dauden etxebizitzetan aterpeak egin nahi zituzten aisialdirako gune bat izateko, aukera bakarra hori gauzatzeko aldaketa hau tramitatzea da. Hirigintza batzordean aztertu zen proposamena eta ontzat eman.

Abuztuaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hasierako onspeneko erabakia eta irailaren 30a arte jende aurreko epean egon da espedientea, alegaziorik aurkeztu gabe. Hortaz eta 2017/1 Legegintzako Foru Dekretuaren 73. Artikuluaren arabera hasierako onspena behin betikoa izatea dagokion.

Hau kontutan hartua, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Behin betikoz onartzea udal araudi orokorraren 26. Artikuluaren aldaketa, aterpeen eraikigarritasunarekin lotuta, hiru albo irekiak dituztenek ez dutelarik eraikigarritasuna gehituko.

-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, arautegiaren testu osoarekin.

5.- Auto historikoen zirkulazio zergan hobariak arautzeko ordenantza. Hasierako onspena.

Alkateak azaltzen du bizilagun baten egindako eskaera baten ildora, batzarrera ekarri dela auto historiko edo 25 urtetik gorako zirkulazio zergari hobaria finkatzea. Horrela arautuko lirateke hobariak:

- %50 25 urtetik gorako ibilgailuak

%100. Ibilgailu historikoak

Interesdunek eskaera egin beharko dute udalean zirkulazio txartelaren kopia bat aurkeztuz ere, eta ibilgailu historiko izaera justifikatzen duen dokumentuarekin kasuan kasu. Basaburuko udalerrian altan dauden autoen errolda ikusi da eta 25 urtetik gorakoak direnak 6 dira.

Hobari hauek indarrean egongo dira eskaera egin eta hurrengo urteko zergan.

Bildutakoek aho batez onartzen dute hasierako onspena ematea auto historikoen zirkulazio zergaren hobariak arautzen duen ordenantzari eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz.

6.- Udaleko eraikinaren 1. Pisuko alokairua esleitzeko pleguaren onespena.

Alkateak adierazten du prestatu dela errenta arautzeko plegua, aztertu behar den dokumentua da, argitaratu eta proposamenak aurkezteko epea ireki baino lehen.

Errentaren prezioa hilabeteko 450 eurokoa finkatzea adosten da. Balorazio irizpideak aztertzen dira eta ontzat eman, hauek direlarik:

a) Erroldatua Basaburuan: 10 puntu.

b) Emakumea: 10 puntu.

c) Familia bakarra: 10 puntu.

d) Seme alaba izatea:

1 seme edo alaba 5 puntu.

2 seme edo alaba: 10 puntu.

3 seme edo alaba: 15 puntu.

c) Etxebizitarik ez izatea: 5 puntu.

Derrigorrezkoa bezala eskatuko da 18 urtetik gorakoa izatea eta ez izatea etxebizitarik jabetasunean Jaunsarastik gutxienez 50 kilometrotan.

Oraindik elektrogailuak jarri gabe daudenez etxea erakusteko moduan daudenean onartuko da plegua eta irekiko prozedura proposamenak aurkezeko.

7.- Mozioak.

UEMAk aurkeztu duen mozioa irakurtzen da:

Udala ere, euskararekin bat

Udalerrri euskaldunek, udalerrri euskaldunetako udalek eta horien ordezkari garenok, hamaika arrazoi ditugu Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek azaroaren 4rako Bilbon deitutako manifestazioarekin bat egiteko. Izan ere, gurean euskara ofiziala denetik dozenaka urte pasatu diren arren, udalerrri euskaldunok hamaika urte daramatzagu gure ohiko jarduna mugatu eta oztopatu nahi duten epaiak pilatzen.

Uztailean, esaterako, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 6.2 artikulua. Arau horrek aukera ematen die Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalei erakunde barruko idatzizko dokumentuak erabat euskaraz egiteko, betiere hizkuntza-eskubideak urratu gabe. Eusko Legebiltzarrak 2016an onartu zuen legea, gehiengo zabalarekin, eta, zazpi urteren ondoren, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi du euskararen erabilerarekin lotutako atal

nagusietako bat. Kolpe handia da udalerrri euskaldunontzat, atzera egitera eta inolaz ere onartu ezin dugun lekura itzularazi nahi gaituztelako: bigarren mailako herritarrak izatera. Nafarroako udalerrri euskaldunek, berriz, zailtasun handiak dituzte legeak eremu euskaldunetarako onartutako hainbat kontu eskubide osoz bideratzeko.

Epaiaren beraren larritasunaz harago, testuingurua ere esanguratsua da. Izan ere, argi dago azken hilabeteotakoak ez direla sententzia isolatuak, botere judizialek hizkuntza-politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarron hizkuntza-eskubideak murrizteko erabakiaren eta oldarraldiaren erakusle baizik. Ez da kasualitatea epai guztien oinarria: zein den: gazteleraren nagusitasuna ezartzen dute eta, beraz, legeak aitortzen digun euskararen ofizialtasuna jartzen dute kolokan.

Zehatzago eta luzeago ere aritu gaitzke, baina udalei eta erakunde publikoari herritarren eredu izatea dagokigunez, aski dela esatera eta euskaldunon eskubideak defendatzera Bilbora joango garela adierazi nahi dugu udalerrri euskaldunetako ordezkariak garen heinean, eta gurekin batera aldarria kalera ateratzeko eta azaroaren 4an Bilbora joateko deia egiten diegu herritarrei ere. Hizkuntza eskubideez ari gara, baina baita aniztasuna, herritarren arteko berdintasuna eta bizikidetzaren oinarri izango duten herriak zaintzeko beharraz ere. Beraz, oldarraldiaren aurrean, guk ere euskararekin bat egingo dugu azaroaren 4an

Agerraldi, elkarrizketa eta antzekoetan UEMAren izenean adieraztekoa:

Egoera larria da, eta oldarraldi honek ederki islatzen du udalerrri euskaldunak nola aritzen diren oraindik ere, euskaraz jardute hutsagatik. Zoritxarrez, hau guztia UEMArentzat ez da berria. Urte askoan, arazo ugari izan dituzte udalek, epaitegiek euskararen normalizazioari galga jarri nahi izan diotelako: aktak euskaraz egiteko debekuak, udalak UEMAren sartzeko trabak eta abar. UEMAk epaitegien ezpatapean egin ditu urte asko. Eta sententzia hauek berriro garamatza orduko egoerara. UEMAKo udalen aurkako eraso zuzena da, beraz. Izan ere, euskara sustatzeko lege-zimendua higatzen ari dira auzitegiak, Gasteizko legebiltzarrak onartutakoaren aurka.

Egoera makur honen aurrean, ezinbestekoa da elkarrekin bat eginda lan egitea. Agintaldia hasi berri dugu udaletan, UEMAren biltzeko urratsa egiten ari dira udal gehiago, eta gure helburua da arduraz jokatzeko: udalerrri euskaldunak gara, eta erantzukizuna dugu euskararen normalizazioan urrats erabakigarriak egiteko. Bide horretan ezinbestekoa da administrazioa ere. UEMAK urte asko daramatza bidea zabaltzen, eta ez dugu onartuko hainbeste urteren ondoren orain atzerantz hastea.

Horregatik, erantzun egin behar dugu. Batetik, nahikoa dela esateko. Oldarraldi judizial hau eten eta salatu egin behar da. Beraz, UEMAK bat egiten du Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako manifestazioarekin. Azaroaren 4an Bilbon izango gara, euskararen aurkako erabaki judizial hauen aurka agertzeko. Baina bestetik, baita euskarak biziberritzeko behar duen orube sendoa eta benetako lege-babesa eskatzeko ere. Oldarraldi honek erantzun juridiko sendoa ere behar baitu. Euskararen sustapenak urrats erabakigarriak behar ditu, lege-esparru eraberrituarekin batera, horrelakorik berriro gerta ez dadin.

Bildutakoek aho batez onartzen dute adierazpen instituzionala eta UEMARA erabaki hau helaraztea agintzen dute.

Azaroaren 25eko Emakumeen Indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren inguruko mozioa:

Duela 24 urte Nazio Batuen Batzarrak azaroaren 25a Emakumeen aurkako edozein indarkeria mota desagerrarazteko nazioarteko Eguna deklaratu zuen eta gaur, beste behin, indarkeria horren egiturazko izaera agerian jartzea beharrezkoa da. Indarkeria fisikoa, psikikoa, ekonomikoa, sexuala, feminizidioa, salerosketa, sexu-esplotazioa, mutilazio genitala, behartuta edo oso gaztetan egindako ezkontzak emakume eta neskekpairatzen duten indarkerien agerpen batzuk besterik ez dira. Giza eskubideen urraketa argia da, kausak sistema patriarkalean oinarritzen dituen, desberdintasunak betikotzen dituen eta mekanismo eta praktika sozial eta kulturalen bidez erreproduzitzen den botere egitura batean oinarritzen dena, emakumeen aurkako indarkeria ahalbidetuz eta normalizatuz.

2003tik, Espainian erregistro ofizialak daudenetik, bikotekideek edo bikotekide ohiek 1.236 emakume erail dituzte, 2,8 milioi neska eta emakumek pairatu dute sexu-indarkeria bizitzako uneraren batean, sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimen % 84 emakumeak dira eta sexu-indarkeriako delitu horien arduradunak gizonak dira % 96an. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren datuen arabera, Nafarroan 2022an % 25 gehiago izan ziren sexu-askatasunaren aurkako auziak, eta % 94 gehiago sexu-erasoak. Era berean, 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-erasoak % 166 igo ziren, aurreko urtearekin alderatuta.

Zifra horiek adierazten dute emakumeen aurkako indarkeria, eta zehazki sexu-indarkeria, gure gizarteko arlo guztietan dagoela, eta badakigu askotan ez direla salatzen eraso horiek. Indarkeria hori bikote-harremanetan, etxean, eremu digitaletan, kirolean, politikan, komunikabideetan, lan-esparruan, elkarteetan, aisialdiko guneetan, kaleetan... agertzen da, eta oinarri ditu, besteak beste jarrera matxisten normalizazioa, diskurtso negazionistak eta gizonen konplizitate edo axolagabekeria. Horiek denak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko feminismoak lortutako aurrerapenekiko erresistentziak dira.

Emakumeen aurkako indarkeria jokamolde askoren normalizazioaren bidez betikotzen da. Egunero ikusi eta entzuten ditugu honelako komentarioetan: “orain ligatzeko kontratu bat sinatu behar da”, “muxu bat besterik ez zen izan, ez da hainbesterako!”, “ezin zaizue ezer ere esan, dena da iraingarria zuendako!”, etab. Horiek indarkeriarekin konplizeak diren diskurtso negazionisten adibide batzuk besterik ez dira, eta

berdintasun erreal eta eraginkorra erdiesteko lanean jarraitzeko galdegiten digute, gizonek zeregin horretan duten inplikazioari bereziki eta zuzenean dei eginez. Beharrezkoa da denok konpromiso aktiboa hartzea, matxismoa betiketzen duten jokamolde normalizatuak, norberarenak edo besteenak, identifikatuz eta desagerraraziz. Bereziki sailhestezina da gizonek aurrerapauso bat ematea eta egoera horiek betiketzen dituen konplizitatearekin amaitzea.

Horregatik guztiagatik, adierazpen hau bultzatzen dugun Tokiko Entitateek honako hau adierazten dugu:

- Gure arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta

Testuingurutan Gure konpromisoa, Administrazio Publiko garen aldetik, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko lanean jarraitzeko, bai eta tokiko entitateen agenda politikoan emakume eta neskatuen indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea bermatzen duten neurriak txertatzeko ere, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin eta herritarrekin elkarlanean.

- Gure ardura, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatuta jokatzeko tokiko protokoloak bermatzeko, sentsibilizazioaren, prebentzioaren, arretaren, esku-hartzearen eta erreparazioaren arloetan lan iraunkorra eginez.

- Gure konpromisoa erasotutako edo eraildako emakume eta neskatuekin, baita

horien seme-alabekin ere, sexu-indarkeriari aurre egin behar izan baitiete.

- Gure interpelazio zuzena adin guztietako gizonei, konpromisoak har ditzaten eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurka aktiboki ager daitezten.

- Gure deia eta aitorpena herritarrei, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko bidean haien arbuioa eta konpromisoa adierazten jarrai dezaten, indarkeria horren agerpen guztiak salatzen, haren oinarri diren eta emakumeen eta nesken bizitza eta askatasuna baldintzatzen duten jarrerak agertaraziz eta herritarrak gonbidatzea azaroaren 25aren inguruan antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzera.

Bildutakoek aho batez onartzen dute adierazpen instituzionala NUFK-era bidaltzea agintzen dute.

Bukatzeko urriaren 25ean ospatzen den landa eremuko emakumeen egunaren inguruan irakurtzen da ondoren transkribatzen den mozioa:

Urriaren 25ean ospatutzen den landa eramuko emakumeen egunaren inguruko mozioa:

Urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugun egun honetan, "Denbora, presentzia, ahots eta bizitza gehiago" lelopean, Berdintasun Teknikaria duten Nafarroako Toki eta Lurralde Erakundeek bat egin nahi dute egun honen ospakizunekin, zainketa sisteman landa emakumeek egindako ekarpena nabarmentzeko. Aspalditik, gure ama, amona eta arbasoak bizitzaren zaindari eta gure lurraldeetako zaintzaile izan dira.

Landa inguruneke emakumeek, askotan ikusezinak eta isilduak izan dira. Gure familia, komunitate eta ingurune naturalen zaintzaren zama eraman dute beren bizkarrean. Belaunaldi bakoitza elikatzeaz, sendatzeaz, hezteaz eta mantentzeaz arduratu dira. Laguntza eta elkartasun sareak sortu dituzte, gure lurretan biziari eutsi dion sare ikusezin baina sendoa eraikiz.

Zainketa lanak neurritz gainekoak izan dira eta oraindik ere horrela izaten jarraitzen dute, oztopo askori aurre eginez. Aurre egin behar izan diete aitortza faltari, baliabide eta zerbitzuen urritasunari, isolamendu geografikoari eta lana balioesteko politikarik ezari.

Zainketa lan horrekin batera, emakumeek zeregin erabakigarria dute landa eremuko ekonomian.

Horietako asko nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza jardueretan aritzen dira, eta elikagaiak ekoizten eta tokiko kultura zaintzen laguntzen dute. Beste batzuek aztertu, ikertu, ekin, sortu eta berritzen dute, landa ingurunea garatzeko aukera berriak sortuz. Hala ere, jarduera horiek sarritan erronkei egin behar izaten diete aurre, hala nola baliabide ezari, lurren titulartasunean dagoen genero arrakalari eta merkatuetara iristeko zailtasunei besteak beste.

Gaur egungo zainketak antolatzeke ereduak, ez ditu asetzen behar sozialak, eta datuek adierazten dute datozen urteetan okerrera egingo duela, zainketak beste modu batera antolatzen ez baditugu behintzat. Aldaketa soziodemografikoek, mendekotasun indizearen hazkundeak, emakumeen lan merkatuko presentzia handitzeak, politika neoliberalen garapenak, sistema publikoaren higadurak eta familia ereduaren hedadurak

eragin nabarmena izan dute zainketen antolaketa moduetan, eta horrek “zainketen krisiaz” hitz egitera garamatza.

Toki Erakundeok erronka guzti hauek planteatzen dituen egungo egoera ikusarazi nahi dugu, eta testuinguru horretan, emakumeek zeregin erabakigarria dutela nabarmendu nahi dugu. Hortaz:

- Zaintza politika publikoen zeharkako ardatz bihurtzea ezinbestekoa da, landa eremuetako errealitatea kontuan hartuta.

- Zaintza lanak aitortu, murriztu eta birbanatzea lehenestea nahitaezkoa da, gizonen parte hartze arduratsua bultzatzeko eta emakumeei laguntzeko.

- Eta erakunde publikoetan, zainketa lanak kudeatu edo pribatizatu ordez, politika eraldatzaileak abiaraztea, zaintza demokratizatu eta duintzeko behar diren egiturak sortu eta garatuz.

Horrela bakarrik sustatuko da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea, eta, aldi berean, pertsonak eta gizarteak bizitzari, ongizateari, iraunkortasunari eta gure garaiko beste erronka batzuei dagokienez dituzten behar eta nahiei erantzungo zaie.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bideak bizitza erdian jartzea derrigortzen du.

Beharrezkoa da, pertsona guztiek bizitza osoa eta duina dutela ziurtatzea herri eroso eta seguruetan, maila sozialean zein ekologikoan jasangarriak. Interes ekonomikoen gaitetik ongizatea lortzeko beharrezkoak diren zainketak jasotzeko eskubidea aitortzea emakumeei eta gizonei.

Bildutakoek aho batez onartzen dute adierazpen instituzionala.

Adierazpen eta mozioen atala bukatzeko alkateak azaltzen du, asteburuan ospatu zen Enduro Basaburua bizikleta txapelketan, parte hartzaile bati bizikleta elektrikoa lapurtu zioten eta eserlekua eta pedala hautsi. Gertaera horiek onargarriak ez direla adierazten dute bildutakoek eta horregatik adierazpen instituzional hau onartzen da aho batez:

“Lehenik eskertu antolaketan parte hartu zuen bailarako dozenaka bizilagunen laguntza, trafikoa koordinatu, ibilbideak seinaleak jarri eta beste lan burutu zituzten ,...

Boluntario horiei guztiei beren prestasuna eta ekarpena eskertu besterik ezin du egin Basaburuko Udalak.

Baina, era berean, Udalak irmoki salatzen dituen aipatutako gertaerak aipatu bezala, parte-hartzaile bati bizikleta bat lapurtu izana eta bizikletaren hainbat elementu hautsi izana. Bandalismo-ekintzak hauek ez dute lekurik ez bailara honetan.”

Gai ordenetik, kanpo industriaguneko lursailen esleipenaren inguruan, alkateak adierazten du proposamena aurkezteko epea urriaren 20n bukatu zela baina badagoela interesdun bat, ez jakintasunagatik ez zuela aurkeztu proposamena. Biderkarekin kontsulta egingo da zuzuenan nola esleitu ahalko litzatekeen proposamena aurkeztu nahi balu. Dorrea gaztandegiko jabearekin jarri da harremanetan alkatea baina adierazi dio momentu honetan beste proiektu batekin dagoela, bere lursailean berean haunditzeko proiektuarekin.

Leitzako inmobiliari batekin ere bilera izan zuela azaltzen du alkateak, dirudienez Gipuzkoako enpresa batzuk interesa agertu dute proiektu honetan.

8. Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa:

Garraio zerbitzuaren martxan jarraitzen du, ordutegiak ajustatu dira baina hala ere denbora luzez egoten dira errepidean ikasleak. Kontutan hartuta Nafar Gobernuko zerbitzua berriki Aizarotzeraino iristen dela Irurtzunera joateko zerbitzua, eta jada udalak egiten duela Edsaren bidez Aizarotz Jaunsarats ibilbidea, eskatuko da hezkuntzak bere gain hartzea zerbitzu hori eta luzatzea ere Igoaraino.

Gainera ere aurtengo zerbitzuaren kostea 28.000 euro ingurukoa da aurreko ikasturteko defizita baina garestiagoa nahiz eta aurreko urtearekin alderatuz, hezkuntzako zerbitzua Aizarotzeraino datorren.

Ikusita zerbitzua martxan jartzeko izan diren arazoak, alkateak proposatzen du bilera bat eskatzea hezkuntzan, udaleko kexa adierazteko eta azaltzeko ere aurreko urteetako zerbitzuaren kostea udalak bere gain hartu izan duena.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Urriaren 1ean, Sasturain etxearen erosketaren proiektua aurkeztu zen eta bide batez omenaldia egin familikoei.

Pintxo poteoa buruko da azaroaren 18 eta 19ko asteburuan eta 25 eta 26koan. Parte hartuko dute Aizarotz, Igoa, Apeztegiberri eta Udabeko bentakoak.

Herrietan jarri diren gimnasia egiteko aparatuen proiektuaren barruan sartua dago ere erabilera erakusteko tailerrak, burutuko dira azaroan zehar, Azaroaren 6an Igoan 10etan eta 12etan egun berean Orokietan. Azaroaren 7an Berueten 12etatik 14etara Bukatzeko azaroaren 9an Itsason 12etatik 14etara. Kartelak egin dira tailerrak zabaltzeko eta edozein herrietan parte hartu ahal dela azaltzen da.

Adinduendako automasaje tailerra antolatu da azaroaren 16 eta 23a 11:30etatik 13:30etara. Iharduera guzti hauek osasun programen diru laguntzan sartuko dira.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Komunitate energetikoen inguruko tailerrak burutu dira, bai Basaburuan bai ondoko bailaretan. Ez zen jende gehiegi bildu.

Kontzejuen bilera adostu zen pistak erabiltzeko ordenantzak tramitatzea herriz herri, Beruete ordenantza ez zuela onartuko adostu zuen eta Itsasok ez du erantzun oraindik. Beste herrietan hasi dira tramitearekin.

Berdintasun Batzordea. Miicaela Elizalde ematen du informazioa.

Zeharkakotasuna udaletxean gaiarekin lotuta formakuntza saioak antolatu dira hautetsientzat. Urtarrila eta otsailean zehar izango dira, bi egun hilabete bakoitzean.

Azaroaren 25aren inguruan hainbat ekintza buruko dira. Gizarte zerbitzuen mankomunitatetik antolatuak Larrainzarren dokumental bat eskainiko da, eta Basaburuan oraindik zehaztu gabe dagon beste ekitaldi bat euskaraz izatea eskatu dena.

Azaroaren 30erako greba feminista deitu da eta kontzejuetara zabaltzeko proposamena dago. Azaroaren 3an asanblada mistoa deitu da horren inguruan. Gainera ere kotxe karabana antolatu da Imotz, Atetz eta Ultzamatik barrena eta pankartak jarriko dira.

9- Informazio orokorra.

Ez dago.

10. Erregu-galderak

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.